

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**KAZETARITZA**

IKASTURTEA 2017-2018

**MEMORIA**

**BARNETIK: BIDASOA ETA OARSOALDEKO  
KULTUR GEHIGARRIA**

EGILEA: AINARA BERGES CASTAÑO

ZUZENDARIA: IÑAKI LAZKANO ARRILLAGA

2018ko maiatzaren 30a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabean eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisa ilustratze aldera”

## Aurkibidea

1) Sarrera .....	4
2) Garapena .....	5
• Kultur gehigarriaren izenburua .....	5
• Landutako gaiak .....	5
• Idazkera .....	7
• Diseinua .....	8
3) Ondorioak .....	11
4) Bibliografia .....	13
• Iturri pertsonalak .....	13
• Iturri dokumentalak .....	14
5) Eranskinak .....	16

## 1) Sarrera

2017-2018 ikasturtearen hasieran, Gradu Amaierako Lana aukeratzeko ordua iritsi zenean, nire burua zalantzaz beterik zegoen. Aukeran zeuden lanen zerrendan hainbat aldiz irakurri behar izan nuen gustukoa nuen lan bat aurkitu arte. Hasierako une haietan argi neukan gauza bakarra prentsa idatziarekin eta kulturarekin zerikusia izango zuen zerbait egin nahi nuela zen. Azkenean, kultur gehigarria baten sorrera helburu zuen lana aukeratzea erabaki nuen, nire nahi guztiak betetzen zituen egitasmoa zela ikusi ostean.

Lanean hasi eta kultur gehigarria zehazteko ordua iritsi zenean, argi izan nuen gehigarria gai jakin baten inguruan ardaztu nahi nuela. Gauzak horrela, lehen ideia euskal dantzaren inguruko gehigarria egitea izan zen. Testuak sortzeko ideiak bilatzen hasi nintzenean, ordea, konturatu nintzen euskal dantzaren gaiak eskaintzen zituen aukerak murriztegiak zirela eta, hortaz, hori ez zela gehigarria ardazteko gairik aproposena.

Honen ostean, kultur gehigarria gai zehatz baten inguruan ardaztu ordez, esparru geografiko baten bitartez mugatzeko ideia otu zitzaidan. Hala, Bidasoa eta Oarsoaldea eskualdeetako kulturarekin loturiko gaiak lantzea erabaki nuen. Beraz, gehigarri honen helburua eskualde horietako hiri eta herrietako gaurkotasunezko kultur gaiak jorratzea da.

Aipatutakoaz gain, lan honen bitartez Kazetaritzako graduan zehar landutako informazio eta iritzi generoez baliatu naiz gehigarri honen sorrerarako, era askotako kazetaritza generoak jorratuko dituen aldizkari bat sortzeko helburuari eusteko asmoz. Horretaz gain, lan honen bitartez kultur atal desberdinak lantzen saiatu naiz, gizartean oihartzun gutxiago duten gaiei lekua emateko. Horrenbestez, hauek izan dira gehigarrian landu diren kultur atalak: dantza, musika, antzerkia, artea, literatura eta zinema.

Laburbilduz, kultur gehigarri honen bitartez Bidasoa eta Oarsoaldea eskualdeetako kultur esparruan lan egiten dutenei ahotsa eman zaie, kulturaren aurpegi ezberdinak irakurleei hurbildu eta mundu hau barnetik ezagutu ahal izateko.

## 2) Garapena

- **Kultur gehigarriaren izenburua**

Gehigarri honen helburua kulturaren alor ezberdinak irakurleei hurbiltzea da, oihartzun handia duten gaietan sakondu eta hain ezagunak ez diren diziplinak ezagutzeko. Helburu hori gehigarriaren azalean islatu nahi izan dut eta *Barnetik* izenburua ipintzea bururatu zitzaidan. Hala, gehigarri honek irakurleek kulturaren mundua barnetik ezagutzeko aukera emango dielakoan. Izen nagusiaren azpian, “Bidasoa eta Oarsoaldeko kultur gehigarria” hitzak ipintzea egokia iruditu zait gehigarriaren edukia eta zabalkunde eremua azalean bertan argi gera daitezen.

- **Landutako gaiak**

Kultur gehigarriaren sorreran, lehen pausoa aldizkarian landuko ziren gaiak aukeratzea izan zen. Horrela, hamasei orrialdez osaturiko gehigarri honetan ezinbestekoa iruditu zitzaidan kultur gaia desberdinen eta gai horien kokapenaren arteko oreka bilatzea, bi eskualdeak osatzen dituzten hiri eta herri guztiak, posible zein heinean, aldizkariaren barnean ordezkatzeko. Hortaz, azkenean, Irun, Hondarribia, Errenteria eta Pasaiako gaiak landu ditut gehigarriaren barnean.

Artikuluak idazteko balizko gaien bila hasi nintzenean, argi izan nuen kultur gehigarri honetako testu nagusian **dantza** protagonista izango zela, gehigarria zehazteko orduan izandako lehen ideia omenez. Gauzak horrela, euskal dantzaren munduarekin lotura zuten gaien bila abiatu nintzen eta Errenterian 2017. urtean inauguratu zen Jantziaren Zentroaren berri izan nuen.

Iraultza Dantza Taldeko kideen ekimenez martxan jarritako zentro honetan, iraganean Euskal Herrian zein Europan erabilitako jantzien inguruko erakusketak antolatzen dira. Jantzi horietan oinarriturik, euskal dantzetan erabili ohi diren zenbait jantzi sortu izan dira. Horrexegatik, erreportaje bat egitea aproposa iruditu zitzaidan, zentroaren lehen urteurrenaren aitzakiatik harago, dantzaren munduarekin harremana duen gai bat era desberdin batean lantzeko.

Erreportajea osatzeko informazioa lortzeko, Jantziaren Zentroa bi aldiz bisitatu nuen eta zentroan lan egiten duen Tania Chave bisita gidariari galdera batzuk egin nizkion. Horretaz gain, Iraultza Dantza Taldearekin harremanetan jarri nintzen egiten duten lana hobeto ezagutzeko eta, hala, Ainhoa Mendibururen kontaktua lortu nuen. Azkenik,

erreportajeari beste ikuspuntu bat emateko Jantziaren Zentroa ezagutzeko irteera bat antolatu berri zuen Eraiki Dantza Taldeko kideekin hitz egin nuen. Unai Arretxe, aipatutako dantza taldeko monitoreak, bisita horren zergatia eta bertan ikasitakoa azaldu zidan. Informazio guztiaz gain, erreportaje sakona osatzeko asmoarekin, argazki galeria txiki bat osatu dut zentroan ikusgai dauden piezak erakusteko.

**Zinemaren** inguruko sail bat sortzea erabaki nuenean, azken urtean barna euskal zinemetan arrakasta izugarria izan duen *Handia* (2017) pelikula lantzea ideia paregabea zela pentsatu nuen. Pelikularen inguruko informazioa bilatzen hasi nintzenean, konturatu nintzen film honen ekoiztetxeetako batek, *Moriarti* izenekoak, Pasaian duela bere egoitza. Hortaz, pelikula gehigarriaren barruan sartzea ezinbestekoa iruditu zitzaidan.

Gainera, *Handia* (2017) filmak izandako oihartzun handia ikusi ostean, gai honen inguruko bi kazetaritza testu desberdin sortu nitzakeela otu zitzaidan. Alde batetik, pelikularen antzean ezkututzen diren ideia eta produkzio prozesua hobeto ezagutzeko, Jon Garaño zinemagilea elkarrizketatze erabaki nuen.

**Musikaren** gaia lantzeko, aldiz, Irungo Ametsa Abesbatza Kultur Elkartearen inguruko testu bat idaztea bururatu zitzaidan. 2017 urtean abesbatzak bere 60. urteurrena bete zuenez, interesgarria iruditu zitzaidan urteurren garrantzitsu horren ostean abesbatzaren balorazioa ezagutzea eta irakurleei abesbatzaren barnean gertaturiko aldaketa esanguratsuenen berri ematea. Ametsa musika korralaren munduan izen handiko abesbatza bat dela kontuan izanda, gaiaren inguruko erreportaje labur bat sortzea egokia iruditu zitzaidan.

Erreportaje horretan, Fernando Etxepare, Ametsa Abesbatza Kultur Elkarteko bi abesbatza gidatzen dituen zuzendaria, elkarrizketatu nuen bi arrazoi direla medio. Alde batetik, egun Ametsaren barnean egiten duen lanarengatik eta, bestetik, bere aita, izen bera zuen Fernando Etxepare, abesbatzaren fundatzaileetako bat izan zelako. Iturri honetaz gain, ahots gazteagoen ikuspuntua bildu nuen eta, horretarako, Eneko Amondarain Ametsa Gazte abesbatzako zuzendaria eta Maria Martin Ametsa Gazte Abesbatzako kantari ohia ere elkarrizketatu nituen.

**Artearen** munduan murgiltzen hasi nintzenean, Javier Sagarzazu margolariaren izena etorri zitzaidan burura. Sagarzazuk 50 urte baino gehiago daramatza artearen

munduan lanean, beraz, artista baten lan egiteko era eta pentsamenduak ezagutzeko modu ezin hobea iruditu zitzaidan margolari hondarribiarrari elkarrizketa bat egitea.

Gehigarrian **antzerkiaren** gaia lantzeko, Erreterian diziiplina honen inguruan abian diren bi proiektuen inguruko erreportajea egitea deliberatu nuen. Lehenik eta behin, Antzerki Labea udal antzerki eskolak antzerki zaleak biltzeko asmoz burutzen dituen ikastaroen berri eman nahi izan nuen. Eta, bestetik, Dejabu Panpin Laborategia izeneko antzerki konpainiako antzezleen lana eta proiektuak ezagutaraztea ere interesgarria iruditu zitzaidan, erreportajea osatzeko. Bi egitasmo hauek arras desberdinak diren arren, elkar elikatu eta helburu komun bat lortzeko lan egiten dute.

Erreportaje honetan, Arkaitz Gartziandia Antzerki Labeko irakaslea elkarrizketatu nuen udal antzerki eskolan nola lan egiten den erakusteko. Antzerki Labeko ikasleei ere ahotsa eman nahi izan nien eta, asmo hori gauzatzeko, Maialen Viaña eta Arrate Arozena ikasleei galdera bakan batzuk egin nizkien. Dejabu Panpin Laborategia antzerki konpainiaren ikuspuntua jasotzeko, berriz, Miren Alcalá irakaslearengana jo nuen, antzerki konpainian lan egiteaz gain, Antzerki Labeko irakaslea ere delako.

Bestetik, *Barnetik* gehigarriaren barnean iritzi generoei lekua egiteko asmoz, *Handia* (2017) filmaren inguruko zinema kritika bat idaztea ere erabaki nuen. Euskal zinemetan pelikulak izan duen arrakasta ikusita, irakurleentzat pelikula honen inguruko kritika bat irakurtzea interesgarria izan zitekeela pentsatu bainuen.

Gehigarria itxiera emateko, kronika bat sartzea aproposa iruditu zitzaidan. Hala, literaturaren esparrua landu gabe ez uzteko, apirilaren 23an Irunen egindako Liburuaren Egunari buruzko kronika bat idaztea erabaki nuen. Kronika honen bitartez, egunean zehar Irungo toki desberdinetan antolatutako ekitaldiak bildu nahi izan nituen.

Laburbilduz, guztira, hamasei orrialdez osaturik dagoen Barnetik kultur gehigarriaren barnean kazetaritza genero hauek landu dira: dantzari buruzko erreportaje sakon bat, antzerkiari eta musikari buruzko erreportaje labur bana, artearen inguruko literatur elkarrizketa bat, *Handia* pelikularen inguruko elkarrizketa bat estilo zuzenean, zinema kritika eta Liburuaren Egunari buruzko kronika bat.

- **Idazkera**

Euskara zuzen eta ulerterrazean idatzitako kultur gehigarria da *Barnetik*. Halaber, euskara batuan idatzi dira gehigarrian aurki daitezkeen testu guztiak. Euskara batua

aukeratzeko arrazoiak bi izan dira. Alde batetik, Bidasoa eta Oarsoaldea eskualdeetan euskara batua delako nagusi eta bere erabilera testuen ulermenaren erraztuko zuela iruditu zitzaidalako. Bestetik, euskara batua nire egunerokotasunean erabiltzen dudana euskara denez gero, euskara mota horrekin lan egitea eta idaztea errazagoa zait.

Gehigarria osatzen duten artikulua idazterako orduan zalantzaren bat sortu izan zaidanean Elhuyar Hiztegia eta Euskalterm Terminologia Bankuaren webgunea kontsultatu ditut, bilatzaileen bitartez nire zalantzak argitzeko. Horretaz gain, “Berria” eta EITBren estilo liburuak ere eskura eduki ditut beti. Zentzu honetan, kazetaritza estiloaren inguruko dudaren bat sortu izan zaidanean bi euskal hedabide hauek emandako jarraibideak aintzat hartu ditut.

- **Diseinua**

Behin aldizkaria osatuko zuten testu guztiak idatzirik neuzkala, egitasmoaren maketazioan pentsatzen hasi nintzen. Kultur gehigarria maketatzeko erabili dudana programa Adobe InDesign izan da. Gaiaren aukeraketak eta testuen idazkuntzak garrantzi handia duten arren, gehigarriak itxura erakargarria izatea ezinbestekoa iruditzen zitzaidan.

Kultur gehigarriaren maketazioan jarraitu ditudan urratsak azaldu baino lehen, argitu behar dut lan hau burutu aurretik aldizkariaren maketazioaren inguruan neuzkan ezagutzak oso murrizak zirela. Nire ezagutzak eta aldizkari maketatu ahal izateko InDesign programak eskaintzen dituen bideo tutorialez baliatu naiz. Honetaz gain, “Argia” aldizkaria eredu moduan erabili dut, maketazioaren barruan testu eta irudien kokapenak eskaintzen dituen aukera desberdinetatik ikasteko.

Gehigarria maketatzeko orduan bi izan ziren buruan izan nituen ideiak: diseinu sinplea eta ulerterraza. Horregatik, estilo minimalista mantentzeko saiakera, aldizkariaren maketazioan hiru izan dira erabili ditudan kolore nagusiak: beltza, zuria eta granatea. Orrialde guztien hondoa zuria izatea erabaki nuen, sinpletasuna mantendu eta irakurleen begiradak gehiegi ez mantentzeko. Kolore beltza testu gorputzak idazteko erabili dut, batez ere. Kolore granatea, berriz, apaingarriak egiteko erabili dut batez ere, kolore beltz eta zuriaren arteko kontrastea sortzeko.

Orrialdeak maketatzeko txantiloia sortzerakoan aldizkari guztia hiru zutabetara diseinatuko nuela erabaki nuen, aldizkari osoan zehar ordena mantentzen saiatzeko.



Gehigarria hiru zutabetara maketatzeak argazki eta elementu apaingarriekin jolasteko aukera ugari emango zizkidala uste nuen, ordena apurtu gabe, aldizkaria aberastu eta irakurleak erakartzeko.

Edukia nola banatu pentsatzen hasi bezain laster, argi izan nuen gehigarriak azala eta aurkibide bat behar zituela. Azalean, dantzaren inguruan idatzitako erreportajeko argazki bat ipintzea erabaki nuen. Izan ere, argazkian azaltzen diren koloreek eta formek azaleko elementuak argi bereizteko aukera eskaintzen zidaten.

Aurkibidean, berriz, aldizkarian aurki daitezkeen atal desberdinak zerrendatu ditut eta atal bakoitzaren hasierako orrialde zenbakia ipini dut alboan. Orrialde hau osatzeko, aldizkariaren barneko zenbait argazki ipini ditut, balizko irakurleen arreta pizteko asmoz.

Letra tipoari dagokionez, azalean eta aldizkariaren barneko edukietan erabili ditudan letra tipoak desberdinak izan dira. Azalean, Ar Julian izeneko letra mota erabiltzea erabaki nuen, tipografia honek dauzkan apaingarriengatik. Era berean, testu zati desberdinak azaleko argazkitik ondo bereizteko, letren inguruan beste koloreko trazu bat ipintzea erabaki nuen, kolore beltz eta zuriaren arteko kontrasteaz baliatuz letrak argi eta garbi irakur zitezten.

Gehigarriaren barneko orrialde guztietan erabili dudana letra mota Corbel izenekoa izan da. Testuak idazteko letrarik egokiena zein zen jakiteko hainbat proba egin eta letra tipo desberdinak inprimatu nituen, paperean nola ikusten ziren konprobatzeko. Eredu desberdinak alderatu ostean, letra mota hau egokiena zela iruditu zitzaidan, letren forma biribil eta sinpleek irakurketa errazten zutelakoan. Gehigarrian barna Corbel letra zenbait tamainatan erabili dut, kazetaritza testuen elementu desberdinak bereizteko, hala nola, tituluak, azpitituluak, leihoak, tartekiak eta zatidurak.

Hau horrela izanik, artikuluen tituluak ipintzeko 35 puntuko Corbel letra beltzua erabili dut eta azpitituluetan, berriz, 15 puntukoa eta etzana. Artikuluen barneko testu gorputza 12 puntukoa izan da. Leihoak bezalako elementuak bereizteko 16 puntuko letra etzana erabili dut, kolore granateaz gainera.

Horretaz gain, aldizkariaren barnean edukiak antolatzeko sortu ditudan sailak bereizteko kolore granateko lauki bat ipini dut orrialdearen goiko aldean. Kolore zurian eta 25 puntuko Ar Barkely letrarekin idatzi ditut atal bakoitzaren izenak.

Memoria: Barnetik kultur gehigarria.  
Egilea: Ainara Berges

Testuaz gain, gehigarriaren atal guztietan argazkiak sartu ditut, hauen bitartez irakurketa erraztu eta aldizkariaren diseinua deigarriagoa egiteko asmoz. Gehigarrian erabili behar nituen argazki gehienak ateratzen saiatu naiz, baina, argazkiak ateratzea ezinezkoa izan zaidanean interneteko webgune desberdinetatik lortu ditut. Argazki guztien argazki oina ipini diet 10 puntutako Corbel letra erabilita eta, atera ez nituen argazkien kasuan, iturria argi eta garbi aipatu dut 10 puntuko Corbel letra belztuarekin.

### 3) Ondorioak

Azken urtean atondu dudan Gradu Amaierako Lan honen bitartez Kazetaritzako Graduan barna izandako irakasgai desberdinetan jasotako ezagutzak aplikatzeko aukera izan dut. Behin kultur gehigarriaren sorrera prozesua amaiturik, ondorio hauetara iritsi naiz:

- Kultur gehigarri baten sorrerak hasieran uste nuena baino lan handiagoa eskatzen duela esan dezaket orain. Izan ere, 2017ko azaroan hasi nintzen gehigarriaren inguruko lehen erabakiak hartzen eta, lan hau ikasturteko beste zereginekin uztartu behar izan dudanez, 2018ko maiatzera arte ez dut hura amaitzea lortu.
- Ikasturte hasieran hartu nituen zenbait erabaki sormen-prozesuan zehar aldatu behar izan ditut, bidean sortu zaizkidan arazoei aurre egiteko. Gehigarria sortzeko lehen zertzeladak ematea erraza da, baina, denborak aurrera egin ahala, ezinbestekoa da gauza batzuk aldatzea azken emaitza ahalik eta egokiena izan dadin.
- Gehigarrian jorratu beharreko gaiak erabakitzea uste baino buru-hauste gehiago eragin zizkidan prozesuaren hasieran. Aldizkariak zabalkunde esparru jakin bat duenean, ezinbestekoa da esparru horretako hiri edo herri gehienak ordezkatzeko modua aurkitzea. Gainera, aldizkarian landutako gaiak ere orekatzea beharrezkoa da, kasu honetan, kultur esparru desberdinak aintzat hartzeko.
- Informazio iturriei dagokienez, zorte handia izan dut aurreikusitako ia iturri guztiekin elkarrizketa bat izatea lortu baitut. Ramon Garcia Iraultza Dantza Taldeko buruarena izan da bidean egin gabe geratu zaidan elkarrizketa bakarra. Gainera, elkarrizketa honi kultur gehigarriaren erreportaje nagusiaren barnean tarte handia eskaini nahi nion. Edozelan ere, elkarrizketa lotzea ezinezkoa izango zela konturatu nintzenean, beste bide bat hartu eta erreportajeari beste ikuspuntu bat emateko gai nintzela konturatu nintzen. Horrela, ordezeko iturriak eskura izateak duen garrantziaz jabetu naiz.
- Kultur gehigarri honi esker, ustez elkarrizketatzeko modurik ez nuen pertsonengana hurbiltzeko aukera daukadala ere ikusi dut. Adibidez, zinema sailaren barruan *Handia* (2017) filma lantzea erabaki nuenean, bere zuzendariekin elkarrizketa lortzea ezinezkoa izango zela pentsatu nuen. Hala ere, haiekin harremanetan jartzen saiatu nintzen eta Jon Garañok adeitasun

handiz erantzun zidan elkarrizketa egiteko prest zegoela. Erantzun hau jasotzeak asko poztu ninduen eta aukera honek erakutsi dit ez dagoela ezinezko den elkarrizketarik, beti ere, hura lortzeko zure esku dagoen guztia egiten baduzu.

- Behin gehigarrian sartzeko edukiak prest neuzkala, aldizkaria maketatzen hasi nintzenean konturatu nintzen maketazioaren inguruan neuzkan ezagutzak oso eskasak zirela. Hortaz, sormen-prozesuaren atal honetan ordu asko eman behar izan ditut. Hasieran, aurrera egitea asko kostatzen zitzaidan, gauzak nola egin behar ziren poliki-poliki ikasten joan nintzelako. Denborak aurrera egin ahala, ordea, gehigarria maketatzea errazagoa izan zaidala ikusi dut eta lortu dudan azken emaitzarekin pozik nago.
- Azkenik, egitasmo honen atzean, gogor lan eginez gauzak ondo egiteko gogo handia dagoela esan dezaket. Gainera, lan honi esker Kazetaritzako Graduak lau ikasturteetan zehar barneratutako ezagutzak aplikatzeko aukera izan dudala uste dut. Eta, hori gutxi balitz bezala, nire kontu gauza berriak ikasi eta lana aurrera ateratzeko gai naizela egiaztatu dut.

#### 4) Bibliografia

- **Iturri pertsonalak**

**Alcala, Miren.** Antzerki Labeko koordinatzailea eta Dejabu Panpin Laborategiko langilea.

**Amondarain, Eneko.** Ametsa Gazte abesbatzako zuzendaria.

**Arozena, Arrate.** Antzerki Labeko Sakontzea ikastaroko ikaslea.

**Arretxe, Unai.** Eraiki Dantza Taldeko monitorea.

**Chave, Tania.** Jantziaren Zentroko langilea.

**Etxepare, Fernando.** Ametsa eta Betiko Ametsa abesbatzen zuzendaria.

**Garaño, Jon.** Zinemagilea.

**Gartziandia, Arkaitz.** Antzezlea eta Antzerki Labeko irakaslea.

**Martin, Maria.** Ametsa Gazte abesbatzako abeslari ohia.

**Mendiburu, Ainhoa.** Iraultza Dantza Taldeko komunikazio arduraduna.

**Sagarzazu, Javier.** Margolaria.

**Txoperena, Eva.** Elkar dendako liburu-saltzailea.

**Viaña, Maialen.** Antzerki Labeko Sakontzea ikastaroko ikaslea.

**Zelaia, Maialen.** Dunboa auzo elkarteko liburu irakurketan parte hartutako haurra.

- **Iturri dokumentalak**

- **Liburuak**

Aramburu, J. d., & Sagarzazu, J. (2006). *Hirian barrena : Hondarribia*. Hondarribia: Hondarribiko Udala.

Atxukarro, B. (1998). *Ametsa : un sueño hecho realidad*. Irun: Sociedad Cultural Coro Ametsa, D.L.

- **Ikus-entzunezkoak**

Arregi, A., & Garaño, J. (Zuzendariak). (2017). *Handia* [Filma].

- **Interneten**

- Egunkarietako artikulak

Agentzia. (2018ko otsailak 23). *Diario Vasco*. Eskuratze-eguna: 2018ko apirilak 10.  
Iturria: Gordailua albergará casi 1.000 prendas cedidas por Jantziaren Zentroa:  
<http://www.diariovasco.com/culturas/gordailua-albergara-1000-20180223144426-nt.html>

Garcia, M. (2018ko apirilak 20). *Cadena SER*. Eskuratze-eguna: 2018ko apirilak 25.  
Iturria: [http://cadenaser.com/emisora/2018/04/20/radio\\_irun/1524221769\\_641276.html](http://cadenaser.com/emisora/2018/04/20/radio_irun/1524221769_641276.html)

M.G. (2018ko apirilak 13). *Diario Vasco*. Eskuratze-eguna: 2018ko urtarrilak 13.  
Iturria: Dejabu Panpin Laborategia desembarca con 'Linbo planeta' el domingo en Santa Ana: <http://www.diariovasco.com/alto-deba/onati/dejabu-panpin-laborategia-20180413001242-ntvo.html>

Morondo, I. (2017ko maiatzak 31). *Diario Vasco*. Eskuratze-eguna: 2017ko abenduak 27.  
Iturria: El Ametsa cantará 'Carmina Burana' en los sanmarciales de este año:  
<http://www.diariovasco.com/bidasoa/irun/201705/31/ametsa-cantara-carmina-burana-20170531000829-v.html>

Viñas, E. (2017ko otsailak 14). *Diario Vasco*. Eskuratze-eguna: 2018ko otsailak 17.  
Iturria: Jantziaren Zentroa ultima su apertura:  
<http://www.diariovasco.com/culturas/201702/14/jantziaren-zentroa-ultima-apertura-20170214001522-v.html>

○ Webguneak:

Ametza Abesbatza Kultur Elkartearen webgunea:

<https://www.coroametsa.org/eu/ametsa-abesbatza-hasiera/>

Antzerki Labearen webgunea: <https://www.antzerkilabea.com/>

Dejabu Panpin Laborategiaren webgunea: <http://www.dejabu.org/>

Dunboa auzo elkartearen webgunea: <https://avvdunboa.blogspot.com.es/p/la-asociacion.html>

Euskal Filmategiaren webgunean, Jon Garañori buruzko informazioa:

<http://www.filmotecavasca.com/es/jon-garano>

Filmaffinity webgunean, "Handia" pelikularen fitxa teknikoa:

<https://www.filmaffinity.com/es/film610629.html>

Gipuzkoakomuseoak.net atarian, Jantziaren Zentroari buruzko informazioa:

<http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=es&Nmuseo=1493297468>

Jantziaren Zentroari buruzko informazioa Errenteriako Kulturaren webgunean:

<http://kultura.errenteria.eus/es/jantziaren-zetroa/>

Javier Sagarzazu margolariaren webgunea: <http://www.javiersagarzazu.com/>

Moriarti Ekoiztetxearen webgunea: ‘

## 5) Eranskinak

Barnetik kultur gehigarriko testuak sortzeko egindako elkarrizketa guztiak azaltzen dira jarraian.

- a) **Ainhoa Mendiburu**, Jantziaren Zentroko komunikazio arduraduna (telefonoz).
1. Nola sortu zen Jantziaren Zentroa sortzeko ideia?
  2. Nolakoa da egun Iraultza Dantza Taldea eta Jantziaren Zentroaren arteko harremana?
  3. Zenbat langilek egiten dute lan guztira Jantziaren Zentroan?
  4. Zenbat bisita izan ditu lehen urte honetan zentroak?
  5. Dantzaren munduko pieza esanguratsu edo baliotsurik ikusgai izan duzue museoan?
  6. Nondik eskuratzen duzue erakusketetan ikusgai dagoen materiala?
  7. Beste dantza talderen baten kolaborazioa duzue?
  8. Museoaren irekierak dantzaren munduan oihartzunik izan al du?
  9. Zer suposatu du museo honen inaugurazioak Iraultza Dantza Taldearentzat?
  10. Datozen hilabeteetarako, zein erakusketa prestatu dituzue?
- b) **Tania Chave**, Jantziaren Zentroko langilea (aurrez aurre, Jantziaren Zentroko bisita gidatuan zehar).
1. Zein da bisitarien iritzia Jantziaren Zentroan izan ostean?
  2. Zerk bereganatzen du gehien jendearen arreta?
  3. Jantziak probatzeko aukerarekin bisitariak asko disfrutatzen dute?
  4. Zein helbururekin hurbiltzen da jendea Jantziaren Zentroan?
  5. Nori gomendatuko zenioke Jantziaren Zentroa bisitatzea?
- c) **Unai Arretxe**, Eraiki Dantza Taldeko monitorea (aurrez aurre, Eraiki dantza taldeko Behobiako lokalean).
1. Zergatik erabaki zenuten Jantziaren Zentroa bisitatzeko irteera bat antolatzea?
  2. Interesgarria izan zen bisita?
  3. Zer ikasi zenuten bertan?
  4. Zer izan zen zuen arreta gehien deitu zuena?
  5. Jantziaren Zentroan ikasitakoa, etorkizunean, zuen jantzietan erabiliko duzuela uste duzu?



6. Erakusketa berria antolatzen dutenean, itzultzeko asmoa duzue?

d) **Fernando Etxepare**, Ametsa eta Betiko Ametsa abesbatzetako zuzendaria (aurrez aurre, Ametsa elkartearen lokalean).

1. Nola eta noiz murgildu zinen musikaren munduan?
2. Zein adinarekin sartu zinen Ametsa Abesbatza Kultur Elkartean?
3. Zein ikasketa burutu dituzu musikaren inguruan?
4. Zer sentitzen duzu Ametsa Elkarteko kide izanda?
5. Egun, zenbat abeslari dituzue elkartean?
6. Nola ospatu duzue 60. Urteurrena?
7. Zerk bereizten ditu Ametsa Elkarteko abesbatzak inguruko beste abesbatzetatik?
8. Abesbatzan ematen diren eskoletan elkartearen sorreraren inguruan hitz egiten diezue ikasleei?
9. Egun, zein egoeran dago Ametsa Elkartea?
10. Etorkizunari begira, Ametsaren barnean hobetu edo aldatu beharreko zerbait dagoela esango zenuke?
11. Nola irudikatzen duzu elkartea hemendik urte batzuetara?

e) **Eneko Amondarain**, Ametsa Gazteko zuzendaria (aurrez aurre, Ametsa elkartearen lokalean).

1. Zenbat urterekin sartu zinen Ametsa Abesbatza Kultur Elkartean?
2. Zein izan da abesbatzaren barruan egin duzun ibilbidea?
3. Ametsaren barruan ikasitakoaz gain, kantuari edo musikari dagokionez, bestelako ikasketarik egin duzu?
4. Gauzak asko aldatu dira Ametsan sartu zinenetik?
5. Zuzendaria izateko ikasketa berezirik egin duzu?
6. Nola iritsi zara Ametsa Gazteko zuzendari izatea?
7. Inoiz imajinatu zenuen zeure burua zuzendari lanetan?
8. Zure ustez, zer behar da musikaren munduan trebatzen jarraitzeko?
9. Nola ospatu duzue Ametsa Elkartearen 60. urteurrena?
10. Zer sentitzen duzu Ametsa Elkarteko kide zarela pentsatzen duzunean?
11. Zure ustez, zeintzuk dira Ametsa Elkartek dauzkan ezaugarri positiboak?
12. Nola gustatuko litzaizuke ikustea elkartea etorkizunean?

f) **Maria Martin**, Ametsa Gazteko kantari ohia (aurrez aurre, Irungo Aia tabernan).

1. Nola murgildu zinen musikaren munduan?
2. Musikari dagokionez, zein izan da orain arte jaso duzun formazioa?
3. Ordu asko eskaini behar zaizkio musikari?
4. Musikari eskaintzen dizkiozun ordu guztiek eraginik dute egunerokotasunean lagunekin edo familiarekin duzun harremanean?
5. Zein esango zenuke dela musikak egin dizun oparirik handiena?
6. Zer sentitu zenuen Ametsa Gazte abesbatza atzean uztea erabaki zenuenean?
7. Ametsa Elkartearen urteurrena ospatzeko antolatu diren ekimenetan parte hartu duzu?
8. Etorkizunean zeure burua Ametsako abesbatzaren batean irakasle moduan ikusten duzu?
9. Etorkizunik ikusten al diozu Ametsa Elkarteari?
10. Zure ustez, zer da musika gizakientzat?

g) **Javier Sagarzazu**, margolari hondarribiarra (aurrez aurre, artistak Hondarribiko Gipuzkoa Plazako arkupeetan duen tailerrean).

1. Zenbat urterekin jakin zenuen artearen mundua gogoko zenuela?
2. Zeintzuk izan dira arlo honen inguruan egin dituzun ikasketak?
3. Zure ustez, zein da artista batentzat eskolarik garrantzitsuena?
4. Artea zure bizimodua izatea erabaki zenuenean, etorkizunean ogibide honek bizitzeko adina diru emango zizula argi zenuen?
5. Non aurkitzen duzu zure koadroak sortzeko inspirazioa?
6. Ikusleen iritzi eta gustuek zure sormen-prozesuan eraginik dute?
7. Koadro bat margotzerako orduan, zein da unerik konplikatuena?
8. Nola definituko zenuke zure estiloa?
9. Margotzeko teknika guztien artean, zergatik duzu gogokoen akuarela?
10. Zure pinturan Bidasoa inguruko paisaiak presentzia handia dute. Zergatik duzu gogoko zure jaioterriaren inguruko paisaiak margotzea?
11. Erakusketak antolatzen dituzunean, zure bizilagun hondarribiarren babesa jasotzen duzu?
12. Margotzen hasi zinenetik urte asko pasa dira. Urte hauetan zure margotzeko estiloa asko aldatu da?

13. Erraza zaizu ikasleei artearen inguruan dauzkazun ezagutza guztiak adieraztea?
  14. Zure ibilbidean zehar jaso dituzun sari guztien artean, bada ilusio berezirik egin zizun sariren bat?
  15. Bizitza osoan zehar margotutako koadroen artean, baduzu bereziki maite duzun lanen bat?
  16. Arteak bizitzeko adina diru ematen du?
  17. Egungo gizartean artea behar bezala baloratzen dugu?
- h) **Arkaitz Gartziandia**, Antzerki Labeko irakaslea (aurrez aurre, Niessen Kulturgunean).
1. Nola murgildu zinen antzerkiaren munduan?
  2. Nolako da Antzerki Labea bezalako proiektu batentzat lan egitea?
  3. Zer bilatzen dute Antzerki Labeako ikastaroetara hurbiltzen diren ikasleek?
  4. Zein metodologia erabiltzen duzu zure antzerki eskoletan?
  5. Lotsa edo beldur eszenikoari nola egiten diozu aurre?
  6. Zertan da onuragarri pertsona baten bizitzan, antzerkia kontsumitzea edo praktikatzea?
- i) **Miren Alcalá**, Antzerki Labeko komunikazio arduraduna eta Dejabu Panpin Laborategiko langilea (aurrez aurre, Niessen Kulturgunean).
1. Nolako da Antzerki Labea eta Panpin Laborategia bezalako bi proiektuen koordinazioaz arduratzea?
  2. Elkarren artean harreman estua duten bi proiektu direla esango zenuke?
  3. Zein egoeran dago egun euskal antzerkia?
  4. Zer behar da antzerki munduan hasteko?
  5. Gaur egungo gizarteak antzerkia kontsumitzeko kultura duela esango zenuke?
  6. Teknologiaren alorrean gertaturiko iraultzak antzerkia sorkuntzan eraginik izan al du?
  7. Onuragarria izan daiteke gizakiontzat antzerkia kontsumitu eta egitea?
  8. Egun, antzerkiaren munduan dauden gabeziak konpontzeko, erakundeen babesa beharrezkoa dela uste duzu?
  9. Nola ikusten duzu euskal antzerkiaren etorkizuna?

10. Etorkizunari begira, antzerkigintza berrasmatu eta orain ezagutzen dugun formatutik oso desberdina izango den zerbait izango dela uste duzu?

j) **Maialen Viaña** eta **Arrate Arozena**, Antzerki Labeako ikasleak (aurrez aurre, Niessen Kulturgunean).

1. Nola izan zenuten Antzerki Labea proiektuaren berri?
2. Zenbat daramazue udal ikastaroetan parte hartzen?
3. Zer da zuentzat antzerkia?
4. Zertan laguntzen dizue antzerkiak zuen eguneroko bizitzan?
5. Jendeari antzerkia egitea gomendatuko zenioke?

k) **Jon Garaño**, “Handia” pelikulako zuzendarietako bat (Skype bidez, elkarrizketa egin genuen unean zuzendarian Kalifornian zegoelako).

1. Non sortu zen “Handia” pelikula egiteko ideia?
2. Lehen ideia hartatik gaur egun ikusi dezakegun pelikulara gauzak asko aldatu behar izan dituzue?
3. Erraza izan zitzaizuen pelikula martxan jartzeko finantziazioa aurkitzea?
4. “Handia” pelikularen kasuan, zerk eman dizuen lan gehiago, produkzioak edo postprodukzioak?
5. Aktoreak bilatzerako orduan, argi zenuten norekin lan egin nahi zenuten?
6. “Handia” pelikulako zein pertsonaiarekin identifikatuko zenuke zure burua?
7. Zein baliotan oinarritu zarete pelikula hau sortzeko?
8. Zein izan da pelikula filmatzeko orduan eszenarik konplexuena?
9. Lanean zenbiltzaten bitartean pelikulak zinematian horren harrera bero izango zuela espero zenuten?
10. Zer uste duzu izan dela pelikulatik jendeari gehien gustatu zaiona?
11. Zer-nolako harrera izan du pelikulak nazioarteko zinema jaialdietan?
12. Zer sentitzen duzu “Handia” filmak sari bat jasotzen duen bakoitzean?
13. Zaila da zinema euskaraz egitea?
14. Filma berriro egiteko aukera emango balizute, zerbait aldatuko zenuke?
15. Pelikulan zehar baduzu bereziki gustuko duzun eszenaren bat?
16. Zein da “Handia” pelikulak izan duen arrakastaren atzean dagoen sekretua?
17. Etorkizunari begira, proiektu berriren bat daukazu barruan?

- l) **Eva Txoperena**, Elkar dendako liburu-saltzailea (aurrez aurre, Irungo Zabaltza plazako Liburu Azokan).
1. Aurten jende asko hurbildu da Irungo Liburu Azokara?
  2. Helduen artean zeintzuk izan dira libururik salduenak?
  3. Eta haurren artean?
  4. Egun, teknologia iraultza paperari aurrea hartzen ari zaion honetan, oraindik jendeak paperean irakurtzeko ohitura mantentzen du?
- m) **Maialen Zelaia**, Dunboa Auzo Elkartek antolatutako liburu-irakurketan parte hartu zuen haurra (aurrez aurre, Dunboa Auzo Elkarteko ludotekan).
1. Norekin etorri zara liburu irakurketara?
  2. Etortzen zaren lehen aldia da hau edo aurreko urteetan ere etorri izan zara?
  3. Kontatu dizueten liburua gustatu zaizu?
  4. Irakurtzea gustuko duzu?